



## EH Bilduk aurkezten duen mozioa Frackingaren inguruan herri borondatea defendatzeko

Udalerrri honetan ezaguna da frackingaren kontrako jarrera. Jendarteak oso era argian erakutsi du ingurumenerako eta osasunerako arrisku larriak dakartzan eta beharrezkoa den energia aldaketa hipotekatzen duen teknika honen aurkako jarrera. Fracking Ez taldeak bultzatutako Herri Ekimen Legegileak gure udalerrrian lortutako babes zabala ere horren beste adierazle argia da.

Hala eta guztiz ere, frackingaren mehatxua ez da inolaz ere gelditu. Herri Ekimen Legegile horren bidez 103.000 biztanle baino gehiagok bultzatutako bidea erantzunda, Legebiltzarrak frackingaren aurkako legea onartu zuen 2015eko ekainaren 30ean.

Espainiako Gobernuak, baina, iragarri berri du lege honen aurkako helegitea aurkeztuko duela Epaitegi Konstituzionalean. Zilegitasunik gabeko jardunek gobernu batek hartutako erabaki hau ezin da baloratu erabaki juridiko soil gisa, baizik eta herritarren burujabetasunaren aurkako mugimendu bat da.

Are gehiago, ez ohiko baliabideak frackingaren bidez ustiatzeko Espainiako gobernuak dituen asmoak inposatu nahi dizkio bai euskal gizarteari bai eta hego euskal herriko instituzioei, bertan era demokratiko eta herrikoien bidez hartutako erabakiak zapalduta.

Aurreko guztia dela-eta, EH Bildu Udal Taldeak Oñatiko Udalbatzari mozio hau aurkezten dio, eztabaidatu eta onartu dezan:

**1.- Oñatiko Udalbatzak Espainiako Gobernuari exijitzen dio Eusko Legebiltzarrak frackingaren aurka onartutako legearen kontrako helegitea kendu dezala eta euskal instituzioek demokratikoki hartutako erabaki oro errespetatu ditzala.**

Oñatin 2016ko Apirilaren 26an

